Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria eta Aterpetxeen Atala
Sección de Juventud y Albergues

Mari, 1 - Tel. 943481909 - 943482803 - Faxa 943481436 - gazteria@donostia.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

GAZTEEN ANTZERKI TOPAKETA 2016
ANTOLAKETA IRIZPIDEAK

Donostiako Udalak, Gazteria Sailaren bitartez eta Donostia Kultura laguntzarekin, XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketa antolatzen du ondorengo irizpide hauekin:

1.- XEDEA

Antzerki Topaketaren helburua gazteak antzerkiarekin harremanetan jartzea da, bai interpretazio edo era sortzaile moduan (eszenatokien gainean edo atzean), bai ikusle moduan, honela kultur ekintzetara joateko ohitura eta gozamena bultzatuz.

Helburuak, beraz, ludikoak, pedagogikoak eta kultur ekintzei bultzada eman eta sustatzearenak dira.

Gazteen Antzerki Topaketak aukera paregabea eskaintzen du parte hartzaileek beraien antzezlanak modu profesional batean gauzatzeko hirian ezagunak eta egokiak diren eszenatokietan.

Bestalde, Topaketak parte hartzaile gazteak motibatu nahi ditu beraien sormen prozesuan aurrerapenak egiteko, eta baita euren kultur ekoizpenaren hedapena bultzatzeko ere.

2.- KATEGORIAK

Topaketara aurkezten diren taldeak mota askotakoak direla eta bukaeran sari batzuk banatzen direla kontuan izanda, bi kategoria bereizten dira, taldekideen batez besteko adinaren arabera:

- Junior kategoria: taldekideek 14 -18 urte artean izan behar dute.
- Senior kategoria: taldekideek 18 –30 urte artean izan behar dute.

10740n XVI

3.- AGERTOKIAK

Emanaldiak honako udal guneetan izango dira:

- Lugaritz Kultur Etxea- Imanol Larzabal
- Egia Kultur Etxea - Gazteszena
- Antzoki Zaharra
- Kontadores Gazte Zentroa

4.- DATAK

XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketa 2016ko maiatzaren 23tik ekainaren 18a bitartean egingo da.

Emanaldien egunak eta ordutegiak hautatutako taldeekin zehaztuko dira.

5.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, taldeek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte.

- Talde ez-profesionala izatea.
- Partaideen adina 14 urtetik 30 urtera artekoa izatea, biak barne. Partaideak 14 urtetik gorakoak izan beharko dira. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza baloratuko da.
- Aurkeztutako antzezlanak euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke.
- Antzezlanek ezin izango dute 90 minututik gora iraun eta gutxienez 30 minutukoak izan beharko dute. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza baloratuko da.

Mari, 1 - Tel. 943481909 - 943482803 - Faxa 943481436 - gazteria@donostia.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Aurkeztutako antzezlanak antzerki lan bezala baloratuak izan beharko dira erakundearen irizpideen arabera, bestelako arte eszenikoetako lanak baztertu egingo dira.

Halaber, antzezlanak aretoen ezaugarri teknikoei egokitu beharko dira muntaiaren baldintzekin bat eginez.

6.- TALDEEN HAUTAKETA

XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketan **20** taldek parte hartu dezakete gehienez ere. Eskaera gehiago jasoz gero, ondorengo irizpideak ezarriko dira parte hartuko duten taldeak hautatu ahal izateko:

- Lehentasuna emango zaie Donostiako ikastetxe, unibertsitate, antzerki eskola zein talde independenteei (zentro batekin lotura ez dutenak) azken kasu honetan, taldeko partaideen %50ak gutxienez hirian erroldatuta egon beharko du.
- Lehentasuna izango dute ibilbide luzeagoa duten taldeek eta Gazteen Antzerki Topaketan aurretik parte hartu dutenek.

Aipatutako irizpideak hartu arren 20 talde baino gehiago egonez gero, erakundeak zozketa egingo luke.

7.- EGITARAUA

Edizio honetako talde parte hartzaileak 20 izango dira gehienez ere, talde bat baino gehiago egun berean antzezteko aukerarekin, hori bai, ordu desberdinetan. Erakundeak parte hartzaileen kopurua handitzeko ahalmena izango du, leku eta egunen erabilgarritasuna izanez gero.

Talde bakoitzak erakundeak azaldutako egutegia kontuan hartuz gutxienez 3 lehentasun adierazi beharko ditu eguna eta lekuari dagokienez. Bat etortzea gertatuz gero, zozketa egingo litzateke.

Izen emateko epea amaitutakoan, **otsailak 26**, antolatzaileek programazio proposamen bat egingo dute taldeek aurkeztutako lehentasunen arabera, emanaldien behin behineko data eta lekuekin. Programa martxoaren lehenengo astean taldeekin egingo den bilera batean zehaztuko da eta edozein baja edo aldaketa, martxoaren 7a baino lehen jakinarazi beharko da.

Antolatzaileek emanaldien egitarau eta kartelak argitaratuko dituzte eta hedabideetan zabalpena egingo dute, 2016ko XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketaren programa osoa azalduz. Talde bakoitzak bere egitaraua edo publizitatea diseinatu nahi izanez gero, erakundeak emandako eredua erabili beharko du edota ondorengo informazioa adierazi beharko du, bai euskaraz bai gaztelaniaz: *XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketa// XXVIII Muestra de teatro Joven eta antolatzaileen logoak edo alternatiba moduan XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketa// XXVIII Muestra de Teatro Joven. Antolatzaileak: Udaleko Gazteria Saila, Donostia Kultura.*

8.- ARETOEN ERABILPENERAKO IRIZPIDEAK

Taldeek zamalanen baldintzetara, ordutegietara eta inguruko espazio bakoitzak ezarritakora egokitu beharko dute.

Aretoen arduradunak talde bakoitzaren solaskidearekin harremanetan jarriko dira emanaldiaren behar teknikoak zehazteko. Aparteko materiala behar izanez gero, erakundeak gastu horiek bere gain hartu ditzakeen ala ez aztertuko du.

10740n XVI

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria eta Aterpetxeen Atala
Sección de Juventud y Albergues

Mari, 1 - Tel. 943481909 - 943482803 - Faxa 943481436 - gazteria@donostia.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

9.- MATERIALAREN GARRAIOA

Ahal den heinean Gazteriak udal ibilgailuen erabilpena erraztuko du, antzezlan bakoitzean behar diren materialak garraiatzeko.

Taldeak hautatu ondoren, erakundeak talde bakoitzak dituen materialaren garraio beharrak aurkezteko epea zabalduko du. Leku bakoitzeko ordutegia eta udal ibilgailuen erabilgarritasuna kontuan izanik, egutegi bat finkatu da (bilketa eta banaketaren tokia eta ordua) lekualdaketa bakoitzerako. Ezinbestekoa izango da taldekide batek gutxienez garraioan laguntzea eta materialaren zamalanez arduratzea.

10.- EKARPENAK

Leihatilaren diru-bilketa talde bakoitzari emango zaio, XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketa bukatu eta beharrezko kudeaketak egin eta gero.

Gazteria Sailak egileen eskubideak likidatuko ditu eta sortutako gastuak bere gain hartuko ditu.

Erakundeak komunikazio, publizitate, aparteko langile, sarien banaketa zein jarduera kudeaketaren inguruan sortutako bestelako gastuak ere bere gain hartuko ditu.

11.- SARREREN KUDEAKETA

Sarrerak areto bakoitzeko leihatilan jarriko dira salgai 3 eurotan. Sarreren erreserba egiteko aukera egongo da antolatzaileek emandako telefonora deituz.
Talde parte hartzaileak nahi izanez gero, gonbit bidez bete ahal izango da aretoa.

10740n XVI

12.- EPAIMAHAIA

Hiru pertsonez osaturiko epaimahaia hautatuko da. Antzerki emanaldi guztietan parte hartuko dute epaitza emanez.

13.- SARIAK

JUNIOR KATEGORIA

Obrarik onenari: Berriro antzezteko aukera + Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak .
Talde artistikorik onenari: Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak
Eszenaratzerik onenari: Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak

SENIOR KATEGORIA

Obrarik onenari: Berriro antzezteko aukera + Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak
Talde artistikorik onenari: Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak
Eszenaratzerik onenari: Bi antzerki emanaldietara joateko sarrerak

- Emakumeen parte aktiboa baloratuko da, bai antzezle moduan edo bestelako eginkizunetan. Emakumeen rol estereotipatuak ez izatea, eta hauen papera bigarren mailako figurante edo aktore nagusiaren lagungarri gisa ez egotea egoki baloratuko da. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortze alderako proiektuak, Donostiako zein beste udaletako Berdintasun sailetara bideratu ahal izango dira.
- Donostiako Udalak antolaturiko beste ekitaldi programa barruan, Topaketa honetako antzezlanen bat barneratzeko aukera egongo da, beti ere aproposa eta egokia ikusten baldin bada.

Mari, 1 - Tel. 943481909 - 943482803 - Faxa 943481436 - gazteria@donostia.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

14.- ANTZEZLANEN GRABAKETA

Antzezlan guztiak grabatuak izango dira. XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketaren amaieran talde bakoitzari DVDaren kopia bat banatuko zaio. Gazteria Sailak bere artxiborako antzezlan guztien kopia bat gordeko du.

Erakundeak grabaketa hauek irabazi asmorik gabeko helburuetarako erabili ahal izango ditu, ekitaldiaren erakusketa, egitarau zein hedapenari dagokionez.

15.- LAGUNTZA EKONOMIKOA

Topaketa honetan parte hartzen duten taldeei kopuru finkoa emango zaie antzezlan bakoitzeko, euren muntaiak egiten laguntzeko. Emandako kopuru honen gastua antolakuntzak emandako irizpideen arabera justifikatu beharko da.

16.- EPEAK

XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketan parte hartu nahi duten taldeek eskaera inprimakia bete beharko dute antzezlanaren argazki adierazgarri bat atxikiz eta **2016ko otsailaren 26a** baino lehen ondorengo helbidera edota gazteria@donostia.eus posta elektronikora bidali beharko dute (kasu honetan argazkiak antzezlanaren tituluarekin adierazita joan beharko dira)

Gazteen Antzerki Topaketa
Gazteria Saila 1.solairua
Mari kalea 1, 20003 Donostia
Tel.: 943481909

Erakundea hautatutako taldeekin harremanetan jarriko da azken antolaketa eta kudeaketarekin loturiko xehetasunak zehazteko.

Taldeek erakundeak eskatutako dokumentazioa adierazitako epearen barruan aurkeztu beharko dute, xehetasunak eta kalitatea zainduz.

17.- BESTELAKOAK

XXVIII. Gazteen Antzerki Topaketan parte hartzeak oinarriak onartzea suposatzen du. Antolatzaileek beharren arabera edozein aldaketa egiteko ahalmena daukate, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein gaiari buruzkoa ere. Halere, hartutako erabakiak onartuak izan behar dute.

Donostian, 2016ko otsailaren 5ean

10740n XVI